

# DATUEN BULETINA 2019KO ARRETA

---



## Gizakia

Pertsona bat, etorkizun bat  
Una persona, un futuro




# JARDUERAREN ERAGINA

2019ko Gizakiaren jarduerak % 87tik gorako hazkundera izan du, batez ere prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzetan izandako gorakadaren ondorioz. Arlo horretan lan egin duten pertsonak 1.830etik 5.818ra igo dira, Bilboko Udalarekin bigarren hezkuntzan prebentzio-tailerrak egiteko kontratua sinatzeari esker.

Esku-hartze zuzeneko eremuetan, gorakada % 8koa izan da, baina enpleguaren arloan artatutako pertsonen gorakada esanguratsua (+267 kasu) kontrapisatu egin da prebentzio arloko kasuen beherakadaren ondorioz (-67 kasu).

Sexuari dagokionez, artatutako biztanlegoaren gehiengoa gizonezkoak dira, baina artatutako emakumeen ehunekoak gora egiten jarraitzen du, emakumeen % 42ra iritsiz (2018 an baino 167 emakume gehiago, hau da, % 14 gehiago), gizonen % 58 aren aurrean.



# ARRETAREN IRISMENA

## 9054

PERTSONA IZAN DIRA ARTATUAK GIZAKIAN 2019TIK

1534



% 32  
% 68



ADIZKIOAK

1024

PERTSONA  
ADIKZIOEKIN

510

SENITARTEKO

450



% 53  
% 47



PREBENTZIOA

132

NERABE

318

SENITARTEKO

1252



% 50  
% 50



LANERATZEA

37

FORMAKUNTZA  
JARDUERAK

126

KONTAKTATUTAKO  
ENPRESAK

5818



BIZTANLERIA  
OROKORRAREKIN  
ESKU HARTZEA

FORMAKUNTZA EDO SENTSIBILIZAZIO  
EKINTZETAN PARTE HARTU DUTEN  
PERTSONAK

- NERABEAK ETA PORTAERA ARRISKUTSUAK
- NERABEZAROAN AGER DAITEZKEEN DROGA KONTSUMOEN ETA JARRERA ARRISKUTSUEN PREBENTZIOA


# URTEKO GERTAERA GARRANTZITSUAK

2019a aldaketa eta aurrerapenen urtea izan da izan da. Alde batetik, azken urteetan abian jarritako lan-ildoak finkatu dira (esaterako, Gizakian doako arretaren osagarri den ordainketa bidezko arreta jaso ahal izateko aukera). Bestalde, azken urteotako aldaketak eta hobekuntzak sendotu ahal izan dira (Erkidegoaren erreforma edo Lanbideren barruko prestakuntza- eta enplegu-eskaintza adibidez) eta proiektu berriak abiarazi dira, artatzen ditugun herritarrengan hautematen ditugun beharretara egokitutako erantzunak eskaintzeko eta erakundeek ezarritako esparruei erantzun ahal izatkeo.

Hona hemen urtea markatu duten gertakari garrantzitsuenetako batzuk:

## 1. Erkidego terapeutikoaren erabilera hobea

Gordexolako komunitate terapeutikoaren erabilera-baldintzak hobetzeko inbertsioak. Obrak amaitu ondoren, 2019an altzarietan eta dekorazio-elementuetan inbertsioak egin dira, bizitzeko baliabide hau modernoagoa, atsegina eta erabiltzaileen beharretara gokituagoa izan dadin. Gainera, Gordexolako eremua erabiltzeko azken erreformak egin dira, formakuntza eta enplegurako erabiliko dena (informatika-gelaren eta prestakuntza soziosanitariorako gelaren kipamenduarekin).





## 2. Habiatu diren jarduera berriak

---



- Nerabeekin genero-indarkeria lantzeko proiektu pilotua, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta (Gizarteratze, Enplegu eta Berdintasun Saila), eta 2018an Hirusta programan hautemandako premien ildotik, programara arazo mota horrekin joaten ziren kasuen kopurua gero eta handiagoa zelako. Gizakia Fundazioak hitzarmen bat sinatu du Bizkaiko Foru Aldundiarekin, programa pilotu bat abian jartzeko, genero-indarkeriako egoeretan dauden nerabe eta gazteei (13 eta 21 urte bitartekoak) eta haien familiei orientazioa, arreta eta laguntza eskaintzeko.

Programak indarkeria matxista bizitzen dauden edo egon diren erabiltzaileak detektatu, artatu eta lagundu nahi ditu, ahalduntzeko, alternatibak aurkitzeko eta haien zaugarritasuna murrizteko.

- Prebentzio-tailerrak, Bilboko DBHko 2., 3. eta 4. mailako ikasleekin. Sentsibilizazioaren arloko jarduera handitzearen aldeko apustua egin da, ez baitgeneukan lehenagotik modu erabakigarrian garatua. Aldi berean egoera zailak dituzten gazteekin eta familiekin zuzenean lan egindako urteetako esperientzia praktikan jartzeko aukera eskaintzen du arlo honek. Ildo honetan lan egiteak materialak eta dinamikak hobetzeko ahalegina ekarri du, eta baita zeregin horretan diharduten profesionalen lan taldea indartzea ere.

# 3. Sentsibilizazio-kanpainak garatzea eta horietan parte hartzea bizkaiko adikzioen errealitatean eta egindako lanean oinarrituz

- **"Topaketaren" kultura** kanpaina, Elizbarrutiak Bizkaiko Proyecto Hombre-ren alde antolatzen duen jardunaldiari lotutako ekimena. Topaketaren kultura sustatzeko deia eginez, ez bakarrik gure proiektuan, baizik eta gizarte osoan. Izan ere, kasu askotan erabiltzeko eta botatzeko kultura bizi duen gizarte baten aurrean gaudelako, zailtasunak dituzten pertsonen atea izten diena, bereziki kolektibo ahul eta estigmatizatuenei (adikzioak dituzten pertsonak).
- **Fair Saturday 2019an Gospel Bilbaok Abandoko San Bizente parrokian** emandako ongintzako kontzertuan parte hartzea. Abesbatzak, gure fundazioari bere hondar puxka eskaintzeaz gain, argiz eta itzaropenez bete zuen eliza, bere osotasunean ikuskizunaz goatzera hurbildu zen jendearekin batera.



**Actuación a favor de Fundación Gizakia**  
Entrada libre hasta completar aforo

**Gospel Bilbao**

**SABADO 30**  
NOVIEMBRE  
19:30

**La cultura del encuentro**

Iglesia San Vicente de Abando  
Plaza San Vicente, 3  
Bilbao

**Gizakia**  
Partidario bat, etorkizun bat  
Eta pertsona baten futuro  
www.gizakia.org

Donativos Fila Cero: **On-Line: www.gizakia.org/llacero**  
Transferencias: BBVA ES17 0182 1290 38 0012623637



**Jornada**  
a favor de  
**PROYECTO HOMBRE**  
Bizkaia

3 de Noviembre de 2019

**Gizakia**  
Partidario bat, etorkizun bat  
Eta pertsona baten futuro  
www.gizakia.org

**La cultura del encuentro**

# 4. 2019-2023ko Plan Estrategikoaren Definizioa



- 2019-2023 Plan Estrategikoa zehazteko prozesuak erakundearen norabidea bideratuko du datozen urteetan. Erabiltzaileen, senideen, bolondresen eta langileen parte-hartze zabalari esker, gogoeta egin ahal izan da Gizakiak inguruko joerei eta lankidetzan aritzen garen erakundearen eskaerei erantzuteko egin behar dituen aldaketei eta ildoetara buruz, eta, horrez gain, gure erakundeari bere hondar-alea eman dio.





#NadieSinAtención  
#YoMeQuedoEnCasa  
#EstamosEnLínea  
#Adicciones  
#COVID19



Gizakia  
Una persona, un futuro

[www.gizakia.org](http://www.gizakia.org)

**KRISI GARAIAN,  
ZURE SOSTENGUA INOIZ BAINO  
GARRANTZITSUAGOA DA**

**WWW.GIZAKIA.ORG  
MADARIAGA ETORBIDEA, 63  
48014 - DEUSTU - BILBO**

**94 447 10 33**